

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Jainkoa vs. sismologia

THOMAS ALLEN



Ezkerrean, *Lot Sodomatik ihesi* (Benjamin West, 1810). Eskuinean, Sodom eta Gomorraren ustezko kokalekua, gaur egun.

ANTZINAKO PALESTINA, K.a. 2.300. Itsaso Hileko lautadako Sodom eta Gomorra hiriak suntsituta geratu omen ziren. Bibliaren arabera, “Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik”, Abrahami jakinarazi zionez, “hiri horien bekata larriegia” zelako. Graham Harris geologoaren arabera, suntsitzea lurrikara batek eragin zuen. Baina zientzialari gehienek, hiriok existitu izanaren arrastorik aurkitu ez denez, Itun Zaharrean jasotakoa fikzioztat eta Harrisen hipotesia susmo soilizat jo izan dute; Cambridgeko Unibertsitateko ikerlari talde batek gaiari heldu dion arte.

Palestinako inguru horietan, Brontze Aroan soilik –K.a. 3.800 eta 3.200 urteen artean– izan ziren hiriak. Sodom eta Gomorra aurkitu ez badituzte ere, inguruan oliba olio fabrika baten arrastoak topatu dituzte; gune populatuak egon bazeuden, beraz. Gainera, Numeirako aztarnategi batean hiru gizakiren hezurak aurkitu dituzte, hausturaz beteta, sabaia azpian hartuta. Karbono-14aren metodoaren bidez, sabaia K.a. 2.350 urtean erori zela ondorioztatu dute. Itsaso Hila, plaka arabikoak eta

afrikarrak bat egiten duten gunea, oso ezegonkorra da. Itsaso Hileko sedimentuen geruzak aztertuz, garai hartan gutxienez 6 magnitudeko lurrikara izan zitekeela ikusi dute.

Baina Bibliak ez du lurrikararik aipatzen. 80ko hamarkadan, jordaniarrak errepide bat egiten hasi ziren inguruotan eta, zundaketak egiten ari zirela, lur azpiko gas metanoa ziztu bizian irten zen eta su hartu zuen. Horra hor Bibliako sua eta sufrea. Hala ere, nola da posible Sodom eta Gomorraren arrastorik aurkitu ez izana? Harrisek dio lurrikarak luiziak eragin zituela, eta inguruko lurzoru porotsuetan likidotzea gerta daitekeela frogatu dute makina zentrifugatzailer batean egindako simulazioaren bidez; hamabost bat minutuan hiri suntsituak hainbat kilometro mugitu omen ziren Itsaso Hilarren hondoan galdu arte.

Horrenbestez, aintziraren hondoa induskatu bitartean, Sodom eta Gomorraren suntsiketa benetan gertatu izana posible dela frogatu dute. Eta bekatu larria lurralde arriskutsu hura bizilekutzat aukeratzea izan zela.

Arrastoak

Europako lehen drogazaleak

ALBERTO ASENSIO

PSILOCYBE HISPANICA onddo haluzinogenoa duela 6.000 urte kontsumitzen zuten europarrek, Villar del Humoko (Espainia) aztarnategiko labar pinturak aztertutako ikerlarien arabera. Margolan sorta horretako bi irudik giza eta onddo ezaugarriak dituzte;

horrez gain, inguru horietan oso ohikoak da onddo espezie hori. Horretan oinarritu dute arkeologoek hipotesi hau. Aljerian 7.000 urteko antzeko irudiak topatu dituzte, baina Cuencakoak dira onddo haluzinogenoen kontsumoaren Europako arrasto zaharrenak.

